



## **LAN DEIALDIA: DEBA GARAIA Elkarte: Landa ingurunerako dinamizatzailea**

**CURRICULUNMA BIDALTZEKO EPEA: azaroak 16, eguerdiko 14,00**

**DEBA GARAIA Elkarte, [marikarmen@debagaraia.eus](mailto:marikarmen@debagaraia.eus)**

### **1. Zereginak**

- Debagoieneko Landa ingurunearen baliabideak identifikatu, ekintzaileak eta proiektuak identifikatu.
- Enpresekin, lehen sektorea bultzatzeko, enpresen erantzukizun sozial arloa landu.
- Baserritar eta lur jabeekin lehen sektorea bultzatzeko bakoitzaren parte hartzea identifikatu, ( nekazal lurren gestioa, basoaren kudeaketa, makinaria konpartitzeko taldeak, komertzializazio taldeak....).
- Baserri inguruan lana egitea nahi duten ekintzaileak identifikatu.
- Jatetxe, dendari eta beste eragile batzuen parte hartzea nolakoa izan daitekeen identifikatu.
- Beste esperientzia batzuk identifikatu eta Debagoienera nola egokitu aztertu.
- Debagoieneko gizarteari ekimenaren berri eman eta euren parte hartzeko moduak identifikatu.
- Elkarrizketako gidoiak prestatu eta datu bilketa egin.
- Talde ezberdinen arteko koordinazioa landu, informazioa trukatzeko guneak, talde dinamikak, proiektuei lotutako lan taldeak sortu eta dinamizatu...
- Landutako gai guztiak txosten baten bildu, eta postuak berak dituen administrazio lanak egin.

### **2. Ezinbesteko baldintzak**

- Unibertsitate tituluduna edo nekazaritza arloko modulu bat izatea, nekazaritza arloan esperientziarekin
- Euskera: EGA, III H.E. edo horren baliokideren bat egiaztatzea.
- B-motako gida-baimena eta ibilgailuaren disponibilitatea ezinbestekoa izango da.
- Landa ingurunearen ezagutza, lehen sektorean eta landa-garapenean lan-esperientzia izatea, elkarlanerako gaitasuna eta giza harremanetarako gaitasuna ere baloratuko dira.

### **3. Eskeintzen da**

Lanaldi osoko urte beterako kontratua Debagoieneko Landa Garapenerako Elkartean